

ERANSKINA
UPV / EHUko IRAKASLEEK ETA IKERTZAILEEK EUSKARA IKASTEKO
DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA
2019ko deialdia

Unibertsitateko komunitatearen baitan hizkuntza normalizazioa errazteko, komeni da irakasle eta ikertzaile asko euskara maila ezberdinetan ikasteko egiten ari diren ahalegina bultzatzea.

Hori dela-eta, honako deialdi hau egiten da:

OINARRIAK

1. DEIALDIAREN XEDEA:

Deialdi honen xedea da **2018 – 2019 ikasturtean zehar, hau da, 2018ko urritik 2019ko irailera arte**, euskara ikastaroak egin dituzten UPV/EHUko irakasleei eta ikertzaileei diru-laguntzak ematea. Deialdi honetan, eskatzaile batek Deialdi honetan, eskatzaile batek **ikastaro** bat baino gehiago **egin badu, diru-laguntza ikastaro garestienagatik emango zaio**.

2. ESKATZAILEAK:

Lanean diharduten UPV/EHUko Irakasleek eta ikertzaileek eskatu ahal izango dituzte diru laguntza hauek.

Hala ere, diru-laguntza eskatu ahal izango du **euskara ikastaro osoa iraun zuen bitartean, eskatzaileak demostratzen badu, UPV/EHUko Irakaslea eta ikertzailea izan dela**.

3. ESKARIAK:

- a) Eskaria egiteko, deialdi honi atxikitako inprimakia erabili behar da, eta UPV/EHUko Erregistro Orokorreko bulego batean aurkeztu behar da (http://www.ehu.es/oficinas_registro.html), edo, hala badagokio, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua ezarritakoaren arabera.
- b) **2019. urtean epe bakarra** irekiko da eskariak egiteko: **2019ko urriaren 3tik 18ra**.

Ez da onartuko epez kanpo aurkeztutako eskaririk.

c) Eskariarekin batera **dokumentazio hau aurkeztu behar da:**

- **Probetxu agiria: ikastaroaren ezaugarri hauek guztiak zehaztuko dira probetxu agirian:**
 - **ikastaroaren hasiera-bukaerako datak,**
 - **hasiera maila,**
 - **gainditutako maila,**
 - **prezioa;**
 - **ordu kopurua;**
 - **asistentzia (emandako eta hartutako orduak);**
 - **ordutegia. (Multimedia edo autoikaskuntza ikastaroak izan ezik)**
- **Enpresak egindako jatorrizko faktura ordainduta dagoela adieraziz edo ordainagiri originala aurkeztu beharko da. Kutzazain automatikoan egindako ordainketek euskaltegiaren zigilua izan behar dute (konprobatzeko kutxazainek emandako ordainagiriaren kontu korrontea euskaltegikoa dela).**
- **Multimedia edo autoikaskuntza ikastaroen kasuan sinatutako kontratuaren kopia bat gehitu behar da.**

d) Eskariak aurkezteko epea amaitutakoan, jasotako eskarien zerrenda argitaratuko da Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzaren iragarki-tauletan nahiz webgunean. Zerrenda horretan adieraziko da, halaber, eskariek zuzenketaren bat behar duten edo dokumentazioa falta zaien, halakorik egonez gero.

Eskaria edo aurkezturiko dokumentazioa osatu gabe badago edo bestelako edozein akats badu, **10 laneguneko epea** emango da akatsa zuzentzeko edota beharrezko agiriak aurkezteko; bestela eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, ebazpena eman ondoren. Horren berri, emango zaie interesdunei Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzaren iragarki-tauletan, baita webgunean ere.

4. DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA:

Diru-laguntza matrikularen %75a izango da honako mugekin:

- a) **Multimedia edo autoikaskuntza ikastaroen kasuan: ordaindu izanaren %75a, beti ere, 900,00 € gehienez. Iraupen luzeko kontratu kasuetan, zeinetan aurreko deialdietan jaso ziren Euskararen arloko errektoreordetzako diru laguntzak, kontratu horiengatik jasoko den diru laguntza guztira ezin izango da 900,00€ gainditu.**
- b) **Euskaltegiko ikastaro arruntak: 1,90 €/ordua**
- c) **Barnetegia: 400,00 € / hamabostaldia.**

Eskarien kopuruak hala behartuko balu, diru-laguntzen zenbatekoa murriztuko litzateke dagoen aurrekontura egokituz. Edonola ere kide batek orotara ezin izango du 1.100,00 € baino gehiago kobratu. Ez da diru-laguntzarik emango maila bera errepikatzeko aurreko urtetako mota berdinetako kurtsoa bada. Ordea, beste mota bateko kurtsoa egiten badu, maila finkatzeko, nahiz eta maila errepikatuta izan, diru-laguntza emango da.

5. ERABAKIA ETA ORDAINKETA:

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordeak erabakia emango du onartutako eta ezetsitako diru-laguntzen zerrendekin, eta atzera egindako eskaerekin. Horren berri, emango zaie interesdunei Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzaren iragarki-tauletan, baita webgunean ere.

Behin betiko erabakiak amaitzen du bide administratiboa, eta haren kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa ezarri ahal izango da, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordearen aurrean, erabakia argitaratzen denetik hilabeteko epean; administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere ezarri ahal izango da, dagokion administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan, erabakia argitaratzen denetik bi hilabeteko epean.

Onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa erabaki ondoren, **ordainketa bakarrean** egingo da diru laguntzen diru-sartzea.

